



# ERRI Pape Ra

2018ko Abendua • 48. zenbakia

## HIZKUNTZA POLITIKA UDALERRI EUSKALDUNETAN: PREBENTZIOTIK GARAPENERA 2-3 or.



**Euskara osasun zerbitzu publikoetan** azken bi urteotako datuak aurkeztu ditu UEMAK UEMAKO KIDE DIREN HERRIETAN, OSASUN ZERBITZUETAKO BOST LANGILETIK BATEK EZ DU HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK. **4. or.**

**Euskara, erakargarria bisitarientzat** Leku turistikoetan erantzundako inkestaren ondorioak Datuek erakutsi dute euskara ezkutatzeari ez duela zentzurik ez bizikidetzaren ikuspegitik ezta negozioaren ikuspegitik ere. **6. or.**

# “UDALERRI EUSKALDUNAK BENETAN GARATZEA DA ARNASGUNEEN IZAERARI EUSTEKO MODU BAKARRA”

**UNIBERTSITATEKO ARKITEKTURA IRAKASLEAK, TURISMO ALORREKO TEKNIKARIAK, ERAKUNDE PUBLIKOETAKO ORDEZKARIAK, EUSKALGINTZAKO ERAGILEAK ETA BESTE HAINBAT ALORRETAKO ADITUAK ETA PROFESIONALAK ELKARTU ZIREN URRIAREN 10ean, AZPEITIAN, 'LURRALDEA ETA HIZKUNTZA: ARNASGUNEEN PREBENTZIOTIK GARAPENERA' JARDUNALDIAN. EUSKARAREN ARNASGUNEEN IZAERARI EUSTEKO MODU BAKARRA UDALERRI EUSKALDUNAK BENETAN GARATZEA DELA NABARMENDU ZUTEN ONDORIOETAN, ETA HORRETAGAKO HAINBAT PROPOSAMEN ZEHAZTU ZITUZTEN ANTOLATZAILEEK.**



UEMAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, Udako Euskal Unibertsitateak, Azpeitiko Udalak, Gaindegiak antolatuta zuten egun osoko jardunaldia, eta ehun bat lagun elkartuta zen egun osoan hitzaldiak eta mahai-inguruak bertatik bertara jarraituz. Argazkiak: Udako Euskal Unibertsitatea.

UEMAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udako Euskal Unibertsitateak, Kontseiluak, Azpeitiko Udalak eta Gaindegiak antolatutako *Lurraldea eta Hizkuntza IV: arnasmuneen prebentziotik garapenera* jardunaldian, udalerrri euskaldunen eta arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatu ziren, udalerrri euskaldunen izaerari eusteko ezinbestekoak direlakoan.

## **HAINBAT ALORRETAKO ADITUAK UDALERRIEN GARAPENAZ HAUSNARREAN**

Egun osoan zehar izan ziren hitzaldietan eta mahai-inguruetan, hainbat alorretako adituak eta profesionalak aritu ziren solasean, eremu euskaldunak garatzeko

eta udalerrri euskaldunen izaerari eusteko zer-nolako hizkuntza politika behar den zehaztuz.

Beste hamaika hausnarketa interesgarriren artean, nabarmentzekoak izan ziren Iurdana Txintxurreta eta Anartz Ormaza arkitektoen ekarpenak. Hizkuntza korridoreak eta arkitektura uztartu zituzten, eta lurraldea kudeatzen denean hizkuntza ere kudeatzen dela erakutsi zuten, datuekin. Hizkuntza korridoreak, zerbitzuen kokapena eta fluxuak aztertuta, horiek guztiak ondo kudeatzeak duen garrantzia aipatu zuten, lurraldea kudeatzerakoan hizkuntzaren ikuspegi kontuan hartu ez denean sortu diren egoerak erakutsiz.

Jakin aldizkariko zuzendari Lorea Agirrek, berriz, hausnarketarako gai mamitsua ekarri zuen hizpidera, *Euskalduntasunari begirada bat genero ikuspegitik* hitzaldiarekin. Udalerrri txikiak hizpide hartuta, maskulinitate jakin bat hizkun-tzarekin lotuta dagoela nabarmendu zuen, “bai hedabideetan eta bai gure mundu ikuskeretan prestigiatzen dena”. Zehazki, herriko-seme-jatorraren irudiarekin lotutako maskulinitate eredu identitarioa eta hizkuntzarekin lotuta dagoela adierazi zuen. “Ezaugarri euskaldunak ditu, dudarik gabe”. Areago ere jo zuen Agirrek, “arnasmuneetan euskara maskulinitatearen habitata da” adieraziz.



**HIZLARIA: Iker Salaberria.**  
**ERAKUNDEA: KONTSEILUA.**  
**AURKEZPENA: 'ARNASGUNEEN GARAPEN JASANGARRIA' PROIEKTUA.**

Garapen iraunkorrerako mundu mailako oinarriak hartu, eta euskararen arnasmuneen garapenerako proposamena

osatu dute hilabeteotan hainbat eragileren artean, UEMArekin batera.

Guztien izenean, Kontseiluko koordinatzaile Iker Salaberriak aurkeztu zituen txostenaren ildo nagusiak Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldian. Dena dela, “osatzen eta egokitzen joan behar-reko lanerako txostena” dela aipatu zuen. “Txosten hau lanerako abiapuntua da. Erreferentzia markoa. Ikuspegi integratzailea duena, eta zeharlerrotasuna praktikara eramateko tresna”. Izan ere, Salaberriak nabarmendu zuenez, “zeharkakotasuna ezinbestekoa da. Arlo edo sail guztietako

politika publikoak blaitu behar ditu, bai eta administrazio maila guztiak. Euskararen arnasmuneei duten balio estrategikoa aitortu behar zaie eta, beraz, udalerrri euskaldun hauek garatzeko eta babesteko politika publiko egokiak zehaztu eta abiarazi behar dira, bai baliabideei dagokienez, baina baita lege garapenera dagokienez ere”.

Horretarako, “arnasmuneen garrantziaren eta estrategikotasunaren inguruan azken urteotan ehundu den adostasuna lanerako akuilu bihurtzeko eta neurri zehatzetara ekartzeko ordua” dela adierazi zuen.

# TXOSTENA



**Izenburua: Arnasguneak. Prebentziotik garapenera. Egileak: UEMA, Kontseilua, UEU eta Gaindegia. Orrialdeak: 16.**

Arnasguneak garatzeko proposamen zehatzak biltzen ditu txostenak. Honakoak:

## 1. Garapen demolinguistikoa.

Lurralde antolaketako gidalerroetan,

hazkunde endogenoaren beharretara egokitzea gehienez eraiki daitezkeen etheen kopurua. Gazteek herrian jarraitzeko ekintza planak egitea: etxebizitzak eta laguntzak.

## 2. Garapen sozioekonomikoa.

Tokiko garapen sozioekonomikorako plana egitea, arnasguneetako herritarren beharrak eta kompetentziak aintzat hartuta, eta inguruaren aukerak kontuan izanda: ikerketa, nekazaritza... Lantoki berrien ezarpenean hizkuntza irizpideak jartzea. Ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako proiektu komunitarioak eta ekonomikoak sustatzea.

## 3. Eskualdeko oinarrizko zerbitzuak.

Arnasguneak garatzeko oinarrizko zerbitzuak katalogatzea (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak...), eta herrian edo eskualdean emateko plana garatzea, horretarako baldintzak malgutuz. Zerbitzu horietako kopuruetan eta ratioetan, esate baterako.

## 4. Garapen soziokulturala.

Herri giro bizia bermatzeko helburuarekin, ekipamenduak eta elkarteak eratzea, laguntzea eta estrategikoki kokatzeko neurriak hartzea, hirigintza plangintzaren bidez.

## 5. Nortasuna.

Proiektu curricular bat lantzea hizkuntza jarrerak eta praxi egokiak lantzeko. Kanpotik etorritakoei transmititzea bertako kultura eta praxiak, inklusioa errazteko harrera programa egokiekin batera.

## 6. Arnasguneen arteko sarea.

Lurralde plan sektorialak diseinatzea arnasgune geografikoen eta soziofuntzionalen arteko sareak sortzeko. Horretarako mugikortasun planak definitzea.

## 7. Politika publikoak.

Arnasgune geografikoen eta soziofuntzionalen lege kategorizazioa lantzea eta izendapena lortzea. Horren bidez, arnasguneetarako politika publikoetarako baldintza bereziak ezartzea.



**Hizlaria: Joseba Garmendia.**  
**Erakundea: EHU.**  
**Hitzaldia: Garapen sozioekonomikoa.**

“Historikoki dimentsio ekonomikoa (hazkundera, aberastasunaren sortzea, enplegua...) nagusitu da garapenaren definizioan. 1990eko hamarkadan, ordea, tokiko garapenari dagokionez, beste indize eta dimentsio batzuek indarra hartu zuten: sozialak, ekologikoak, politikoak edo kulturalak, adibidez. Giza garapenaren indizea ere nabarmentzen hasi zen. Gaur egun, dagoeneko, garapena ez da termino ekonomikoetan soilik ulertzen, termino sozial eta kulturaletan ere ulertu behar da. Dena ez da ekonomia. Aniztasunak eta herri txikiak bizirik mantentzeak ere bere garrantzia du garapenez hitz egiterakoan”.



**Hizlaria: Itsaso Olaizola.**  
**Erakundea: Kutxa Ekogunea.**  
**Hitzaldia: Arnasguneen balio estrategikoa.**

“Askotan entzun dugu hiriak euskaldundu behar direla. Noski baietz. Baina dikotomia faltsua da. Ekologiaren ikuspegitik behar-beharrezkoak dira gune euskaldunak, arnasguneak, euskara naturalki bizi-bizirik dagoen guneak. Ingurune zuzenbideak hainbat neurri aurreikusten ditu ekologiaren ikuspegitik. Bada, arnasgunerik gabe ez da hiri euskaldunik izango. Estrategikoak dira, noski”. (...) “Arnasguneetan hartzen den erabaki bakoitzean ari gara hizkuntza kudeatzen. Lurralde antolaketan edo turismoan hartzen den erabaki bakoitzak eragiten du hizkuntzan”.



**Hizlaria: Xabier Bengoetxea.**  
**Teknikari ohia.**  
**Hitzaldia: Oinarrizko zerbitzuen eskualde garapena.**

“Arnasguneak garatzeko beharrezkoak dira oinarrizko hainbat zerbitzu (udala, eskola, gizarte zerbitzuak, ekipamendu eta eskaintza soziokulturala, oinarrizko merkataritza, azpiegiturak, garraio sare egokia, taberna, elkarte, eta abar) eta zerbitzu horiek egundoko garrantzia dute herri giroa mantentzeko. Horiek dira sozializatorako espazio nagusiak, eta horien arabera sozializatzen dira herritarrak. Gune horietan euskarazko jarduna izan da eta da nagusi. Arau-sozial hori belaualdiz belaualdi modu naturalean transmititu da, ezer berezirik egin beharrik gabe. Horiek zaindu ezean, ordea, herria erabat aldatuko zaigu”.

## UEMAko KIDE DIREN HERRIETAN, OSASUN ZERBITZU PUBLIKOETAKO BOST LANGILETIK BATEK EZ DU HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK: 616 LANGILETIK 133 LANGILEK, ZEHAZKI


**UEMAko KIDE DIREN 86 HERRIETAKO OSASUN ZERBITZU PUBLIKOAK AZTERTU DITU UEMAK, ETA LEHEN ALDIZ FAMILIA MEDIKUAK ETA PEDIATRAK EZ EZIK, ERIZAINAK, HARRERAKO LANGILEAK ETA LARRIALDIETAKOAK ERE HARTU DITU KONTUAN. GUZTIRA, 616 LANGILETIK 133 LANGILEK (%21,60) EZ DU HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK. NAFARROAREN KASUAN, %68RA IGotzen DA HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK GABEKO LANGILEEN EHUNEKOA. ESKUBIDE URRAKETA BETIKO IRAUNKORTU EZ DADIN, UNIBERTSITATEAN ERAGITEA PROPOSATU DU UEMAK, "FAKULTATETIK ETA OSASUN ERAKUNDEETATIK IKASLEEI BALIABIDEAK ESKAINIZ EUSKARAZ IKASTEKO ETA EUSKARAZ LAN EGITEKO".**

Bi urtetik behin egiten duen behaketaren datuak aurkeztu zituen UEMAK urrian, hedabideen aurrean egindako agerraldian, hainbat udaletako alkate eta zinegotzien laguntzarekin.

UEMAko lehendakari Josu Labakak datu esanguratsuak eman zituen: "UEMAko kide diren herrietan, guztira, osasun zerbitzu publikoetan 133 langile daude hizkuntza eskakizunik gabe. Mankomunitateko 86 udalerrietatik ia guztiei eragiten die egoera horrek, zerbitzu orokorretan ez bada, larrialdietan. Osakidetzan, 76k ez dute dagokien maila. Osasunbideari begira, euskara merezimendu gisa dago ia lanpostu guztietan, eta UEMAKo udalerrietan 57 langile daude inongo ziurtagiririk gabe (%68). Datu orokorrak argiak dira: bostetik batek ez du hizkuntza eskakizunik".

Etxarri-Aranazko alkate eta UEMAKo zuzendaritza batzordekide Eneka Maizek, berriz, azken urteotan eman diren aurrerapausoak nabarmendu, datu zeha-tzak eman, eta Nafarroako egoeran jarri zuen arreta: "Halako azken azterke-

### OSASUN LANGILEAK UEMA-KO HERRIETAN



Infografía: Berria.

ta 2016 egin genuen, eta zentro batzuetan egoerak hobera egin badu ere, besteetan okerrera egin du edo bere horretan irauten du. Joera orokorra onerakoa bada ere, oraindik lan asko dago egiteko osasungintzaren alorrean. Mankomunitateko hainbat ambulatortan urratsak egin dituzte, eta hizkuntza eskakizuna dute langile guztiek; hori da arnagune guztietarako nahi genukeen egoera. Azken urteetan zerbitzua euskaraz eskaintzeko pausoak eman dituzte hainbat osasun etxeetan. Zarautzen, Azpeitian, Markinan eta Bermeon, esaterako".

### HAINBAT HERRITAN PEDIATRA ERDALDUNA DUTE ORAINDIK

Beste zenbait udalerritan, ordea, egoerak okerrera egin du. Herri horietan, areagotu egin da hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten sendagileen kopurua.

Udalerrri batzuetan, bereziki larria da egoera. Izan ere, mediku edo pediatra guztiak dira euskaraz egiten ez dutenak. Horrek esan nahi du herri horietako bizilagunak behartuta daudela gaztelaniaz hitz

egitera medikuarekin. Deban, Aramaion, Zestoan, Getarian, Aizarnazabalen, Usurbilen eta Elgetan pediatra bakarra dute, eta ez du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Beraz, herri horietako haurrek zerbitzua gaztelera jasotzea beste aukerarik ez dute. Goizuetako, Leitzako eta Aresoko umeek ere pediatra bat konpartitzen dute, eta ez da euskalduna.

### UNIBERTSITATEAN ERAGITEKO BEHARRA

Udalerrri batzuetako egoera larria irauli eta aurrerapausoak sendotu nahian, beste behin ere neurri zehatzak hartzeko eskatu dio UEMAK Osakidetzari eta Osasunbideari, lankidetzan jarraitzeko borondatea agertzearekin batera.

Besteak beste, hezkuntza arloari garrantzia emateko eskatu die bi erakundeek: "Izan ere, eskariari aurre egiteko, euskal adarrean plaza gehiago gorde behar dira unibertsitatean. Ikasleek, gainera, arazo handiak dituzte oraindik euskaraz ikasteko. Azterketak egiterakoan ere, gaztelania hautatzeko iradokitzen diete osasun erakundeetatik".

### TXOSTENA



**Izenburua: Hizkuntza eskubideak udalerrri euskaldunetako osasun zerbitzu publikoetan. 2018. Egilea: UEMA. Orrialdeak: 33.**

## UDALERRI EUSKALDUNETAKO GAZTEEN TOPAKETEK JARRAIPENA IZANGO DUTE EKAINEAN, GAZTEAK KONTZIENTZIATZEKO

**UEMAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAK HIRUGARREN ALDIZ EGINGO DU BIDEA ESKOLATIK KANPO, DATORREN EKAINEAN. GAZTE TOPAKETAK ETA UDALEKUAK ANTOLATU OSTEAN, GAZTEAK EUSKAL HIZTUN GISA SENTSIBILIZATZEKO, KONTZIENTZIATZEKO ETA AKTIBATZEKO EKIMEN IBILTARIA ARI DA PRESTATZEN UEMA. URTARRILEAN ZABALDUKO DA IZENA EMATEKO EPEA.**

Euskararen erabilerari eusteko, herri-tarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa da UEMAREN ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektua sortu zuen UEMAK duela hiru urte, eta UEMAKO herrietako ikasle-txeetan ari dira lantzen, ikasleen artean hizkuntza ekologiararen diskurtsoa zabaltzea eta arnaguneen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain.

Proiektua bere osotasunean garatzeko, eta hezkuntza arautuaren mugak gainditu nahian, lehen aldiz Salto Gazte Topaketak antolatu zituen UEMAK iaz. Udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzea eta beraien artean euskara oinarri hartuta saretzea zen asmoa. Lehen deialdi hark izan zuen erantzun ederra ikusita, pasa den uztailean Udalerrri Euskaldunetako Gazteen Udalekuak antolatu zituen lehen aldiz UEMAK.



Uztailean Zestoako Sastarrain aterpetxean astebeteko egonaldia egin zuten Udalerrri Euskaldunetako Gazteen Udalekuean lehen aldiz parte hartu zuten lagunek. Datorren ekainean ibiltaria izango da astebeteko topaketa.

Orain, hirugarren ekimena prestatzen ari da dagoeneko UEMAREN hezkuntza saila. 2019ko ekainean izango da: Usurbildik Arantzarako gazte topaketa ibiltaria.

Urtariletik aurrera izango da izena emateko aukera, UEMAK hedabideetan, sare bideetan eta [uema.eus](http://uema.eus) webgunean ekimenaren nondik norakoak aurkeztean.

### USURBILDIK ARANTZARA: PAUSO ETA SALTO GAZTE TOPAKETAK. 2019ko ekainaren 26tik 30era.

Honakoak dira UEMAK ekainean udalerrri euskaldunetako gazteentzat antolatuko duen ekimenaren nondik norakoak, laburtuta.

#### HELBURUAK

- Euskararen arnaguneen hezkuntza proiektua eskolatik kanpo ere zabaltzea eta bere osotasunean garatzea, gazteak hiztun gisa sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko, aktibatze eta ahalduzko. Euskaraz bizi, sortu, elkarbanatu eta euskararen arnasa zabaltzeko eragile bilaka daitezten.

- Udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzea, eta elkarren arteko sareak eratzea.

- Euskaraz bizi diren gazteak inertziaz kontzientziarako jauzia emanda efektu biderkatzailea sortzea, euskararen erabilera eta lurgunea zabaltzeko.

- Euskaraz gozatzea eta euskara gozatzea.

#### PARTE-HARTZAILEAK

Udalerrri euskaldunetako 15 eta 18 urte arteko gazteak.

#### EGUTEGIA ETA IBILBIDEA

1. eguna. Ekainak 26, asteazkena. Usurbil-Oiartzun.
2. eguna. Ekainak 27, osteguna. Oiartzun-Bera.
3. eguna. Ekainak 28, ostirala. Bera-Arantza.
4. eguna. Ekainak 29, larunbata. Arantzako aterpetxea.
5. eguna. Ekainak 30, igandea. Arantzako aterpetxea.

# TURISMOA

## EUSKARA IKUSTEA, ENTZUTEA ETA TURISMO ESKAINTZAN NABARMENTZEA GUSTURA HARTU OHI DUTE BISITARI GEHIENEK

**TURISMOAK GORA EGIN DUEN HAINBAT UDALERRI EUSKALDUNETAN, BISITARIEK EUSKARAREKIKO DUTEN IKUSPEGIA AZTERTU DU UEMAK, INKESTEN BIDEZ. JASOTAKO ERANTZUNETAN JOERA ARGIA IKUSTEN DA: BISITARI IA GUZTIEK ESKERTU EGITEN DUTE EUSKARA IKUSTEA EDO ENTZUTEA, ETA ASKOK BERARIAZ HAUTATZEN DU UDALERRI EUSKALDUNETARA ETORTZEA, EUSKARAREKIN TOPO EGITEKO. BISITARIREN LAURDEN BAT EUSKAL HERRITIK DATOR, ETA BESTE LAURDEN BAT HERRIALDE KATALANETATIK.**



Zumaia, Bermeo eta Leitzaldean erantzun dituzte bisitariek galdetegiak, eta antzeko joerak agertu dira erantzun gehienetan: bisitarien %85ek eskertu egiten du euskarazko ikustea edo euskara entzutea. Argazkia: Baleike.

Zumaia, Bermeo eta Leitzako Turismo bulegoetan, landetxeetan eta ostatuetan bisitarien erantzundako 727 inkestaren datuak aztertu ditu Ahize hizkuntza aholkularitzak, UEMAK eskatuta, udalerrri euskaldunetara heltzen diren bisitarien euskararekiko duten pertzepzioa ezagutzeko. Turismoak gora egin duen hainbat lekutan erdarak nabarmentzeko eta euskara ezkutatze joera sumatzen den arren, datuek nabarmen erakusten dute bisitarien eskertu egiten dutela euskararekin topo egitea.

Bisitarien %95ek adierazi du ez duela inolako arazorik izan euskararekin. Erdiek baino gehiagok (%54), berriz, euskararekin izan duten harremana atsegin dutela edo asko gustatu zaiela erantzun dute.

### **%85 ONDO KONPONDU DA EUSKARA HUTSEKO ERROTULUEKIN**

Hizkuntza paisaiari dagokionez, bisitari gehienek (%85) eskertu egin dute eta ondo konpondu dira errotuluak euskara hutsean topatu dituztenean.

Erantzunak ulertzeko, bisitarien jatorriari arreta jartzea ere giltzarrietako bat da. Izan ere, bisitarien laurden bat Euskal Herritik bertatik heltzen da, beste laurden bat Herrialde Katalanetatik, beste laurden bat Espainiatik eta gainerakoak oro har Frantziatik, Alemaniatik, Eskoziatik, Ingalaterratik, Galesetik eta Herbeheretatik.

Bisitarien gehiengo handi baten jatorrizko herrietan, bi hizkuntza baino gehiago dira ofizialak, edo nolabaiteko batesa dute lurralde osoan edo zati batean.

## ONDORIO NAGUSIA: EUSKARA ERAKARGARRIA DA BISITARIANTZAT

### **Eremu euskalduna**

Bisitari gehienek badakite euskal hiztun asko bizi den gune batera datozela, eta espero dute euskararekin topo egitea.

### **Euskara, akuilu**

Bisitari talde handi batentzat etortzeko arrazoia ere hori izan da: euskaraz bizi den herri baten bila etorri dira.

### **Desoeroso, oso gutxi**

Oso gutxi izan dira desoeroso sentitu direnak. %95ak ez du inolako arazorik izan euskararekiko.

### **Askorentzat, atsegina**

Askorentzat, aldiz, atsegina izan da, eta asko gustatu zaiela nabarmendu dute.

### **Euskararekin, eroso**

Gehienak eroso sentitu dira euskararekin izan dituzten harremanetan. %85ek eskertu egin du hizkuntza paisaian euskara aurkitzea.

### **Bisitarien zati handi bat, bertakoa**

Bisitarien zati esanguratsua Euskal Herritik bertatik dator. Beraz, negozioaren ikuspegitik ere kontuan hartzeko moduko

xede taldea da, premia zein eskubide linguistikoak dituen.

### **ONDORIOA: EUSKARA AMU ERAKARGARRIA DA BISITARIANTZAT**

Beraz, laburbilduz: euskara bertara etortzeko faktore bereizgarria da bisitari askorentzat (%31), eta ez da etortzeko oztopoa gainontzeko ia guztientzat. Datuek erakusten dute turismoak gora egin duen eta bisitariak ugartu diren lekuetan euskara ezkutatzeak ez du zentzurik bizikidetzaren ikuspegitik, ezta negozioaren ikuspegitik ere.



## BERTAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO KANPAINA ABIARAZI DUTE LEITZAN, UEMAREN LAGUNTZAREKIN

**LEITZAKO KAXKABELTZA MERKATARI ELKARTEAK HERRIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO ETA MERKATARITZAN EUSKARA ERE KONTUAN HARTZEKO KANPAINA ABIARAZI ZUEN AZAROAN, UEMAREN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAREKIN. KANPAINA HONEKIN, HERRIKO DENDETAN EROSTEA HERRIARI BIZIRIK EUSTEKO ETA HERRIA GARATZEKO ZEIN GARRANTZITSUA DEN NABARMENDU NAHI DUTE LEITZAKO MERKATARIK. MERKATARITZA EUSKALDUNTZEKO ETA UDALERRI EUSKALDUNAK GARATZEKO UEMAREN ILDOEKIN BAT EGITEN DUENEZ KANPAINAK, UEMAREN LAGUNTZA ERE IZAN DU KAXKABELTZA ELKARTEAK.**



Kanpainako zenbait euskarri, bertako merkataritza sustatu nahian.

Herriko merkataritza sustatzeko *Nik herriko denda txikian erosten dut!* kanpainarekin, Leitza bertan erosteko 10 arrazoi nabarmendu ditu Kaxkabeltza merkatarik elkarrekin. Oro har, ordea, gainerako herrietarako ere baliagarriak dira arrazoi horiek guztiak: “Merkatariak eta ostalariak bizilagunak ditugu, gertuko tratua ematen digute, herriari bizitza ematen diote, gure gastua herritarren mesederako inbertsioa da, bertatik bertara ditugu, herriko berri ematen digute, herritarrei lana ematen diete eta aberastasuna herrian bertan banatzen dute, besteak beste”. Herritarrei bertako hizkuntza aritzeko aukera ematen dietela nabarmentzearekin batera, merkataritza euskalduntzeko ildoaren baitan ez ezik, udalerrri euskaldunen garapenarekin lotutako ekimenen baitan ere kokatu du UEMAK kanpaina hau, udalerrri euskaldunak garatzea arnaguneen izaerari eusteko ezinbestekoa delakoan.

## OSTALARITZAN EUSKARAZKO PRENTSA SUSTATZEKO KANPAINA



Berria egunkariko zuzendari Martxelo Otamendi, UEMAKo ordezkariekin eta kanpainan parte hartu duten zenbait udaletako (Larrabetzu, Legorreta, Anoeta eta Alegia) alkateekin batera, Andoainen, kanpaina aurkeztu zen egunean.

**BERRIA TALDEAREKIN BATERA 'ESKAINI BERRIA ZURE TABERNAN' KANPAINA ABIARAZI DUTE UEMAK ETA KANPAINAREKIN BAT EGITEN DUTEN 27 UDALEK. EUSKARAZ BIZITZEA, EUSKARAZ IRAKURTZEAREKIN ETA OSTALARITZAN EUSKARAZKO PRENTSA HERRITARREN ESKURA EGOTEAREKIN ERE LOTZEN DU KANPAINA HONEK, IRAKURKETA OHITURETAN EUSKARA SUSTATU NAHIAN.**

Ostalaritza sektorean euskarazko prentsari ikusgarritasuna ematea eta hizkuntza paisaia eragitea da kanpaina honen asmoa, euskarazko eskaintza bezeroarentzat balio erantsia dela nabarmenduz. Edozein herritarrek esan dezake zein taberna edo kafetegian irakurri nahi duen *Berria*, eta taberna horrek hilabete batez doan jasoko du egunkaria.

Ondorengo sei hilabeteetan, berriz, nahi izanez gero, *Berria* egunkaria egunero 150 euroren truke jasoko luke ostalariak, Berria taldeak kanpaina honetarako berriaz prestatu duen eskaintza bereziari esker. Kopuru horren erdia tabernariak eta beste erdia udalak ordainduko dute. Horretarako prest agertu dira kanpainarekin bat egin duten 27 udal.



# EUSKARALDIA



## EUSKARALDIA IGAROTA, URTE BERRIAN ERE ERABILERARI EUSTEA ETA HAINBAT HIZKUNTZA OHITURA ALDATZEA DA GAKOA

**UDALERRI EUSKALDUNETAN ERE MILAKA LAGUNEK HARTU DUTE PARTE EUSKARALDIAN, AHOBIZI EDO BELARRIPREST TXAPAK JANTZITA. HERRITARREK ILUSIOZ HARTU DUTEN AHALDUNTZE ARIKETA IZAN DA, ETA ORO HAR EUSKARAZ ARITZEN DIRENAK ERE HAINBAT ALORRETAN ERDARARA JOTZEN DUTELA IKUSTEKO BALIO IZAN DU. HERRITAR ASKOK JASO DITUZTE TREBAKUNTZA SAIOAK**

Amaitu da Euskaraldia, euskara sustatzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko Euskal Herri osoan egin den ariketa kolektiboa. 250.000 lagun baino gehiagok eman dute izena Ahobizi edo Belarriprest roletan aritzeko, eta ekimenak arrasto nabarmena utzi du, baita udalerrri euskaldunenetan ere.

Hainbaten hizkuntza ohiturak aldatzeko balio izan du Euskaraldiak, eta baita alor ezberdinetan hizkuntzarekiko dugun harremana aztertzeko ere. Batez ere erdaretara zein esparrutan eta zergatik jotzen dugun aztertzeko eta egoera horiek iraultzeko ahalegina ere egin du herritar askok.

Euskaraldiaren atarian, UEMAko teknikariak buru-belarri ibili ziren herrietako batzordeekin zein udalekin elkarlanean, Ahobiziak zein Belarriprestak trebatzeko eta kontzientziatzeko saioak gidatzen eta herritarren zalantzak argitzen.



Euskaraldiaren atarian zein Euskaraldiak iraun duen egunetan, ekimenean parte hartzeaz gain, milaka lagunek eman diote babesa hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenari. Irudietan, Usurbilgo herritarrek (goian) eta Zarauzko hondartzako futbol txapelketako jokalariek (behean), Euskaraldiari babesa erakutsiz. Argazkiak: Euskaraldia Usurbil eta Euskaraldia Zarautz.

## UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR, SAREAN ETENIK GABE JASO DAITEKE UEMAren informazioa

**UEMA.EUS webgunean ez ezik, TWITTER, FACEBOOK, INSTAGRAM, MASTODON ETA OHIKO SARE BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAk informazioa, HIZKUNTZA POLITIKARI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ**



Webgunea: [uema.eus](http://uema.eus) · Twitter: [@uema\\_eus](https://twitter.com/@uema_eus) · Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz) · Issuu: [uema\\_eus](https://www.issuu.com/uema_eus) · Instagram: [UEMA\\_eus](https://www.instagram.com/UEMA_eus)